

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2131

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2013an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (Lanhitz) ematea arautzen duena.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatu zituen. Dekretu horren 10. artikulua Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, besteak beste, honako hauen inguruko egitekoak izendatu zizkion: hizkuntza politika eta euskararen sustapena.

Bestalde, 193/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, honako zeregin hau ezarri zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bere 21.1.h artikuluan (EHAA, apirilaren 24koa, 78. zk.): azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera arautzekoa, eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe administrazioko beste organo batzuek horretarako berariaz izendatuta dituzten funtzioak.

Halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere egiten ditu Euskararen Aholku Batzordearen «Euskara 21, Itun Berritu Baterantz» izenburudun liburuan jasotako XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak.

Euskararen Aholku Batzordeak, 2012ko uztailaren 18an onartutako Euskara Sustatzeko Ekin-tza Planean arlo sozio-ekonomikoaren alorrean, etorkizunerako erronka era honetan zehazten du:

Enpresen eguneroko lanean euskara erabiltzea bezain garrantzitsua da (edo garrantzitsuagoa) bezeroarekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera bermatu eta sustatzea, kontsumitzaileek euskaraz jarduteko duten eskubidea aintzat hartuz. Herri-administrazioek ematen dituzten diru-laguntzetan enpresen jardueren alderdi horrek lehentasuna izan behar du.

Jarriak dauzkan zereginak betetze aldera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak urtero-urtero deitu eta ebatzi izan ditu arloz arloko laguntza-deialdiak. Era berean, bidera ditzakeen gainerako ekintzei kalterik egin gabe, 2013ko deialdia egitea erabaki du.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2013an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea eta deialdia egitea da (Lanhitz).

2. artikulua.— Diru-baliabideak.

Lanhitz deialdirako aurreikusitako diru-baliabideak 1.944.800 euro dira (kopuru hau lehen xedapen gehigarriaren arabera gehitu egin daiteke) eta irizpide hauen arabera baliatuko dira:

1.— Lehenik, 2012an Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu eta deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten entitateek diru-laguntza gehigarri bat jaso ahal izango dute, baldin eta diru-laguntza jasotzeko lortu beharreko gutxieneko puntuak lortzen badituzte.

2.– Gainerakoa, lehen euskara-planaren diseinua eta 2013ko kudeaketa-plana garatzeko eska-bidea egin duten entitateen artean banatuko da, Agindu honetako 17. eta 18. artikuluetan jasotako puntuen eta muga arabera.

3. artikulua.– Pertsona edo entitate onuradunak.

1.– Hauek dira laguntza-modalitate honen hartzaileak: Europar Batasuneko naziotasuna edo helbide soziala edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutakoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta, edozein dela ere haien eraketa juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten lantokien titularrak edo kudeatzaileak badira.

2.– Deialdi honetatik baztertuko direnak:

a) Herri administrazio batek edo gehiagok jarritako kapitala denetara entitatearen kapital sozial osoaren erdia baino gehiago duten entitateak.

b) Euskalduntzen edo euskara-planen aholkularitza-lanetan nagusiki jarduten dutenak.

4. artikulua.– Pertsona edo entitate onuradunen betekizunak.

1.– EAEko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

2.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik dutenak, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legeko debekuetan sartuta daudenak ere. Era berean, ezin izango da sexu arrazoiengatik diskriminaziorik egitearren zigortua izan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

3.– Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren adierazten diren estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren diru-laguntzak jaso dituzten erakundeak: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II eta Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00) baldin eta jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak blokeatutako diru-kontu batera itzuli ez badituzte.

4.– Eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenaren Erregistroan alta emanda izan beharko dute. Betekizun hau ezinbestekoa da baiezkotzeko ebazpena izanez gero ordainketak egiteko.

5. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako diru-laguntzak.

6. artikulua.– Denbora-barrutia eta eskabideak aurkezteko epea.

1.– Laguntza-deialdi honek 2013an burutuko diren egitasmoak baino ez ditu kontuan hartuko. Hori dela eta, deialdi honetara jotzen duten egitasmoak gauzatzearen ondorioz eskaini, eman edo gizarteratu beharreko jarduerak, zerbitzuak eta produktuak 2013ko abenduaren 31 baino lehen eskaini, eman edota gizarteratuko dira.

2.– Laguntza-deialdi honetan parte hartu nahi duen orok izango du eskabide-orria aurkezteko aukera, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epean.

7. artikulua.– Diru-laguntzen izapidetze elektronikoa.

1.– Pertsona edo entitate interesdunek bide elektronikoak erabili ahal dituzte prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta bestelako ereduak modu elektronikoan zein aurrez aurrekoan izapidetzeko zehaztapenak euskadi.net-eko <https://euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/lanhitz/> helbidean daude eskuragarri.

3.– Eskaera izapidetzeko edota dokumentazioa aurkezteko aukeratutako bideak (aurrez aurreko edo elektronikoa), ez dakar prozedurako hurrengo izapideetan ere nahitaez bide hori bera erabili behar izatea. Edozein momentutan alda daiteke bidea.

Eskaeraren ondorengo izapideak, bide elektronikoa erabiliz gero, honako gunearen bitartez egin beharko dira: <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

8. artikulua.– Eskabideak eta inprimakiak aurkeztea.

1.– Eskabide-orri normalizatua, behar bezala beteta, eta agiriak, herritarren Arretarako Bulegoetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Lurralde Ordezkaritzetan edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan aurreikusitako tokietan aurkeztuko dira. Eskabide-orriaren eredu egoitza elektronikoan izango da eskuragarri.

Postaz egin nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko dira eskabide-orria eta agiriak: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Bide horri ekitekotan, eskabide-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da posta-bulegoan, postariak data eta zigilua jarri diezazkion eskabide-orriari, ziurtapena egin baino lehen.

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztu ahal izango dira aipatutako euskadi.net egoitza elektronikoan sartuta.

2.– Entitate eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza-eskaerak eta haiei lotutako dokumentazioa. Halaber, laguntza-eskaeraren ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarri den bezala.

9. artikulua.– Pertsona edo entitate eskatzaileen zenbait betekizunen egiaztapena.

1.– Diru-laguntzaren entitate/pertsona eskatzailea zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean dagoela behar bestetan egiaztatuko du automatikoki organo kudeatzaileak eskatzaileari baimenik eskatu gabe, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezarritakoari jarraituz.

2.– Eskatzaileak aukera du berariazko baimena emateko gainontzeko datu eta dokumentazioa laguntza kudeatzen duen organoak lortu edo egiaztatu dezan, herri-administrazioei dagozkien egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-eskumenak aparte utzi gabe, eskabidea izapidetzeko erabilitako bidea edozein delarik ere.

3.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina betetze-aldera, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, eskabide normalizatuan ondorengo betekizunak egiaztatuko dira:

- Administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturen batetik, agindu honetan araututako diru-laguntzaren helburu bera duen laguntzarik jaso edota jasoko duen edo ez.
- Entitatea itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta dagoen edo ez.
- Pertsona edo entitate eskatzaileak ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio-zehapen edo zehapen penalik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere, beren beregi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Entitatea legez eratuta dagoela eta dagokion Erregistroan izena emanda.
- Ez duela jo ondoren adierazten diren legez kanpoko eta bateraezinak diren laguntza fiskal hauetara: Araba I, Araba II, Araba III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Bizkaia I, Bizkaia II, Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II, Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00). Eta jo badu ere, jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak blokeatutako diru-kontu batera itzuli dituela.

Gainontzeko betekizunak nola eman, arestian aipatutako egoitza elektronikoan, euskadi.net-en, zehaztuko da.

4.– Erregistratuta egon ezean, edo Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenaren Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi izanez gero, hirugarrenaren datuen alta inprimakia aurkeztu beharko du. Inprimaki hori euskadi.net-en dago.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean eginiko akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

11. artikulua.– Deialdira bil daitezkeen jarduerak.

Agindu honetako diru-laguntzak ondoren aipatzen diren jardueretarako erabiliko dira: EAEn lantokiak dituzten entitate pribatuen lehen erabilera-planaren diseinurako eta kudeaketa-planerako.

Interesa duen pertsonak edo entitateak lehen euskara-planaren diseinurako laguntza eska dezake lehendik laguntzarik jaso ez badu, ez diseinurako, ez kudeaketa-planerako.

Lehen euskara-planaren diseinua aurkeztuz gero, urteko kudeaketa-plana ere aurkeztu beharko du pertsona edo entitate eskatzaileak. Kudeaketa-plana garatzeko ekintzek 2013ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean egindakoa izan behar dute.

12. artikulua.– Dirulaguntza-gai diren bi jarduerak bete beharreko gutxienekoak: lehen euskara-planaren diseinua eta 2013ko kudeaketa-plana.

1.– Eskatzaile guztiek, Erreferentzia Marko Estandarrari jarraiki (EME aurrerantzean), aplikagarri zaizkien 3. mailako osagai guztien hizkuntza-egoera zehaztu beharko dute eta urteko planerako helburuak (epe labur eta ertainera) ere zehaztu beharko dituzte, Planhitz aplikazio informatikoa modu egokian betez.

EME (Erreferentzia Marko Estandarra) eta Planhitz aplikazioari buruzko zehaztapenak arestian aipatutako egoitza elektronikoan, euskadi.net-en.

2.– Pertsona/entitate eskatzaileek, aipatutako aplikazioaren bidez, EME ereduaren arabera aurkeztuko dute kudeaketa-plana (urteko planaren barruko ekintzak atala behar bezala betez). Plan guztiek EMEn ardatzetatik bi jorratu behar dituzte, gutxienez. Halaber, euskara-koordinatzailea edota euskara-batzordea izan behar dute.

3.– Entitate eskatzailearen aginte exekutibo gorena duen organoak onartu behar du urteko kudeaketa-plana Entitate eta proiektuaren inguruko beste datu batzuk izeneko formularioa betez. Legezko ordezkariak sinatu beharko du aurkeztutako plana entitatearen aginte exekutibo gorena duen organoak aztertu eta onartu egin duela adieraziz.

13. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak.

1.– Proiektuaren auto-finantzazioa gutxienez % 40koa izatea.

2.– Entitateak bere jarduerak 12. artikuluan zehaztutakoaren arabera aurkeztu behar ditu.

3.– Diru-laguntzaren jasotzaile direnek diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueren ondorioz agerpen publikoetan erabiltzeko diren iragarki-txarteletan, argazkietan eta gainerako material idatzietan, entzunezkoetan eta elektronikoetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako babesa adierazi beharko dute, horretarako logotipo normalizatua erabiliz. Arestian zerrendatutako material horiek guztiek gutxienez euskaraz egon beharko dute.

14. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: pertsona edo entitate eskatzailearen ingurukoa.

1.– Eskatzailea pertsona fisikoa izanez gero, ondorengo hauek egiaztatu beharko ditu:

- Eskatzailearen nortasuna.
- Autonomoen Erregistroan edo dagokion elkargo profesionalean alta emanda dagoela.
- Jarduera Ekonomikoen zerga-ordainketan alta emanda dagoela.

Eskatzaileak aukera du berriazko baimena emateko gainontzeko datu eta dokumentazioa laguntza kudeatzen duen organoak lortu edo egiaztatu dezan, herri-administrazioei dagozkien egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-eskumenak aparte utzi gabe, eskabidea izapidetzeko erabilitako bidea edozein delarik ere.

2.– Eskatzailea pertsona juridiko pribatua izanez gero:

Entitate bakoitza legez eratuta dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkaria zein den eta ordezkaritza hori egiteko lege ahalmenak dituen pertsona eskatzailearen jarduna zein arauen menpean dagoen.

3.– Artikulu honetako 1 eta 2 ataletan aipatutako dokumentazioa EAEko Administrazio Oroko-rean aurkeztu izan bada eta eskaera egitean indarrean badago, eskabide-orrian dokumentazioaren ordezkari adierazpena markatu ahal da eta noiz eta non aurkeztu zen dokumentazioa adierazi.

4.– Administrazio honetako erregistroetan dauden fundazioak, elkarteak edo kooperatibak badira, ofizioz konprobatuko du Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eta nahi-koa izango da Eskabide-orrian hau adieraztea.

5.– Eskabide-orria sinatzen duenak bere izenean egiten ez duenean edo eskatzailea pertsona juridikoa denean, sinatzen duen pertsonak indarrean dauden lege-ahalmenak aurkeztu beharko ditu.

6.– Laguntza-deialdian parte hartu nahi duen orok agindu honi lotutako Eskabide-orria eta Entitate eta proiektuaren inguruko beste datu batzuk izeneko formularioak bete beharko ditu. Azken honetan, zein jardueratarako aurkeztu nahi duten zehaztuko dute eskatzaileek (bi jarduerak markatzea posible da, betiere aurreko urteetan xede hauetako baterako ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntzarik jaso ez badu eskatzaileak).

15. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: jardueraren ingurukoa.

1.– Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehatua (Entitate eta proiektuaren inguruko beste datu batzuk izeneko formularioa).

2.– Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako aplikazio informatikoa era egokian beteta. Erabiltzaile berriek Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzarekin harremanetan jarri behar dute Planhitz aplikazioan (www.euskara.euskadi.net/planhitz) alta emateko. Erabiltzaile-aldaketa guztiak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, Lanhitz web gunean (www.euskara.euskadi.net/lanhitz) dagoen alta emateko fitxaren bidez.

3.– Berrikuntza edota euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 proiektuak aurkeztuz gero, proiektu bakoitzaren txostena (Berrikuntza eta web 2.0 euskaraz egitasmoak deituriko formularioa).

4.– Beharrezkotzat joz gero, EMEn 4. ardatza lantzeko egingo dituzten ekintzen inguruko informazio osagarria ere aurkez dezakete eskatzaileek eta aintzat hartuko da planaren balioespenean.

5.– Pertsona edo entitate eskatzaileak adierazle-sistema aurkez dezake, adierazleak definituta izanez gero. Horretarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako Adierazle-sorta izeneko formularioa erabil dezake.

16. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Bai lehen euskara-planaren diseinurako bai 2013ko kudeaketa-planak aztertzeke eta baloratzeko, hurrengo kideek osatutako balorazio-batzordea eratuko da:

a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena, edo haren ordezkoa.

b) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, edo haren ordezkoa.

c) Foru Administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxienez maila zerbitzuburuarena delarik.

d) Sozio-ekonomia arloko bi aditu.

e) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko ardura duna edo haren ordezkoa.

f) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

2.– Balorazio-batzorde honek, agindu honen 17., 18. eta 23. artikuluetan ezarritako diru laguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpideak kontuan izanik, aurkeztutako planak aztertu eta baloratu ondoren, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari ebazpen-proposamena aurkeztuko dio. Behin Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ebazpen-proposamenak sinatuta, pertsona eta entitate onuradunei jakinaraziko zaie eta, EHAA-n argitaratuko dira, herritar orok jakin dezan.

3.– Balorazio-batzordea osatzeko orduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan dioena beteko da.

4.– Balorazio Batzordeko kideek parte ez hartzea erabaki dezakete edo errefusatuak izan daitezke, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. eta 29. artikuluetan ezarritako moduan.

5.– Balorazio-batzordearen osaeraren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

17. artikulua.– Diru-laguntza ebazteko prozedura eta balorazio-irizpideak.

1.– Lehiaketa bidez erabakiko da deialdi hau; hots, aurkeztutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta finkatutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, egitasmo bakoitzari dagokion puntuazioa emango zaio.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri. Aldez aurretik, behar izanez gero, 18.9 artikulua arabera konputatu ezin diren gaindikinen arazketa egingo da, aurrekontu araztua finkatuz. Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren gaineko % 60koa izango da. Halaber, ezingo zaie eskatu baino gehiago esleitu, eta lortutako puntuazioari 18. artikuluan zehaztutako mugak ezarriko zaizkie.

Nolanahi ere, hasierako kalkuluen emaitzen kopurua deialdiaren diru-zuzkidura baino handiagoa bada, entitateek jaso beharreko diru-laguntza kopurua hainbanatu egingo da, proportzioan, deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeke.

3.– Lehen euskara-planaren diseinua baloratzeko irizpideak:

a) Euskara-planaren balioespena, EMERI jarraiki egindako diagnosiaren, aukeratutako helburuen eta planteatutako aurrerapen-mailaren arabera: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) Egungo hizkuntza egoera: 5 puntu gehienez.

2) Aurrerapen-maila: 5 puntu gehienez.

b) Egindako diagnostik aukeratutako helburuetara zein planteatutako aurrerapen-mailara iristeko kudeaketa-planaren egokitasuna eta bideragarritasuna: 30 (hogeita hamar) puntu, gehienez.

c) Entitateak aurkeztutako adierazle-sistema. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak finkatutako adierazle-sorta (Ikus izen bereko formularioa) nahiz entitateak berak finkatutakoa aurkez dezake kudeaketa-planarekin batera. Adierazleen egokitasuna eta adierazkortasuna baloratu da: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) HPSren adierazle-sorta edo entitatearen bestelako adierazleak beteta: 10 puntu.

2) Adierazlerik ez da aurkeztu: 0 puntu.

d) Auto-finantzazioa: 5 (bost) puntu, gehienez.

1) Finantzazio-maila propioa % 41etik % 50era bitartekoa bada: 2 puntu.

2) Finantzazio-maila propioa % 51tik % 65era bitartekoa bada: 4 puntu.

3) Finantzazio-maila propioa % 65etik gorakoa bada: 5 puntu.

e) Errotze- eta instituzionalizatzeko-maila: erakundeak, hizkuntza bere sistematikan integrazeko, lantzen dituen barne mekanismo edo irizpideak baloratuko dira, EMEn 4. ardatzean oinarrituta. Hona hemen adibide gisa aintzat hartuko direnak: Euskara-Batzordea duten ala ez eta bere osaera (baloratuko da zuzendaritza-mailako ordezkariak egotea, eta aginte-maila desberdinetako langileak egotea); Euskara-Batzordea enpresaren organigraman dagoen ala ez; Euskara-planaren helburu nagusiak plan zabalagoan jasota ote dauden (estrategikoan, adibidez); enpresa osoko hizkuntza-politika zehazten duen adierazpenik dagoen; euskara-plana enpresaren kalitate-planean txertatuta dagoen; euskararekiko jokabidea prozeduretan txertatuta dagoen; hizkuntza-irizpideak zenbait arlotan indarrean dauden (arlo berrietara hedatzeko ahalegina), eta abar: 15 (hamabost) puntu, gehienez.

1) Hizkuntza politika: 5 puntura arte.

2) Euskara Batzordea: 5 puntura arte.

3) Hizkuntza irizpideak: 5 puntura arte.

f) Euskara planean berrikuntza metodologikoa lantzen duten egitasmoak eta euskararen erabilerara sustatzeko web 2.0 proiektuak: 10 (hamar) puntu gehienez.

1) Berrikuntza egitasmoak: 5 puntu gehienez.

2) Web 2.0 egitasmoak: 5 puntu gehienez.

g) Entitateak EAEko lantokietan dituen langile-kopurua: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) ≤ 50 langile: 3 puntu.

2) 51-100 langile: 5 puntu.

3) 101-250: 7 puntu.

4) > 250 : 10 puntu.

h) Bezero zein kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, euskararen presentziak eta erabilerak enpresei eta produktuari/zerbitzuari dakarkieten balio erantsia sustatzera bideratutako ekintzak. Kontuan hartuko da gaur egungo merkatuko hizkuntza aniztasunaren erronkari aurre egiteko irizpideak eta jarraibideak ezartzea: 10 (hamar) puntu gehienez.

4.– 2013ko kudeaketa-plana baloratzeko oinarritzko irizpideak:

a) Euskara-planaren balioespena, EMEn jarraiki egindako diagnosiaren, aukeratutako helburuen eta planteatutako aurrerapen-mailaren arabera: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) Egungo hizkuntza egoera: 6 puntu gehienez.

2) Aurrerapen-maila: 4 puntu gehienez.

b) Egindako diagnostik aukeratutako helburuetara zein planteatutako aurrerapen-mailara iris-teko kudeaketa-planaren egokitasuna eta bideragarritasuna: 25 (hogeita bost) puntu, gehienez.

1) Diru-baliabideen egokitasuna: 5 puntu gehienez.

2) Ekintza-planaren balioespena: 20 puntu gehienez.

c) Entitateak aurkeztutako adierazle-sistema. Hizkuntza lkerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak finkatutako adierazle-sorta (aipatutako Zuzendaritzak bere web gunean eskura jarriko duen ereduaren arabera: www.euskara.euskadi.net/lanhitz) nahiz entitateak berak finkatutakoa aurkez dezake kudeaketa-planarekin batera. Adierazleen egokitasuna eta adierazkortasuna baloratuko da: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) HPSren adierazle-sorta edo entitatearen bestelako adierazleak beteta: 10 puntu.

2) Adierazlerik ez da aurkeztu: 0 puntu.

d) Auto-finantzazioa: 5 (bost) puntu, gehienez.

1) Finantzazio-maila propioa % 41etik % 50era bitartekoa bada: 2 puntu.

2) Finantzazio-maila propioa % 51tik % 65era bitartekoa bada: 4 puntu.

3) Finantzazio-maila propioa % 65etik gorakoa bada: 5 puntu.

e) Errotze- eta instituzionalizatzeko-maila: erakundeak, hizkuntza bere sistematikan integrazteko, lantzen dituen barne mekanismo edo irizpideak baloratuko dira, EMERen 4. ardatzean oinarrituta. Hona hemen adibide gisa aintzat hartuko direnak: Euskara-Batzordea duten ala ez eta bere osaera (baloratuko da zuzendaritza-mailako ordezkariak egotea, eta aginte-maila desberdinetako langileak egotea); Euskara-Batzordea enpresaren organigraman dagoen ala ez; euskara-planaren helburu nagusiak plan zabalagoan jasota ote dauden (estrategikoan, adibidez); enpresa osoko hizkuntza-politika zehazten duen adierazpenik dagoen; euskara-plana enpresaren kalitate-planean txertatuta dagoen; euskararekiko jokabidea prozeduretan txertatuta dagoen; hizkuntza-irizpideak zenbait arlotan indarrean dauden (arlotan berrietara hedatzeko ahalegina), eta abar: 15 (hamabost) puntu, gehienez.

1) Hizkuntza politika eta hizkuntza irizpideak: 5 puntura arte.

2) Euskara Batzordea: 5 puntura arte.

3) Inplikaturako langile kopurua: 5 puntura arte.

f) Euskara planean berrikuntza metodologikoa lantzen duten egitasmoak eta euskararen erabilerara sustatzeko web 2.0 proiektuak: 10 (hamar) puntu gehienez.

1) Berrikuntza egitasmoak: 5 puntu gehienez.

2) Web 2.0 egitasmoak: 5 puntu gehienez.

g) Entitateak EAEko lantokietan dituen langile-kopurua: 5 (bost) puntu, gehienez.

1) ≤50 langile: 2 puntu.

2) 51-100 langile: 3 puntu.

3) 101-250: 4 puntu.

4) >250: 5 puntu.

h) Bezero zein kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, euskararen presentziak eta erabilerak enpresei eta produktuari/zerbitzuari dakarkieten balio erantsia sustatzera bideratutako ekintzak. Kontuan hartuko da gaur egungo merkatuko hizkuntza aniztasunaren erronkari aurre egiteko irizpideak eta jarraibideak ezartzea: 10 (hamar) puntu gehienez.

i) Ikasleei lan-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzea: 5 (bost) puntu gehienez.

1) 2013an ez da egongo ikaslerik lan-praktikak euskaraz egiten: 0 puntu.

2) 2013an lehen aldiz ikasleak lan-praktikak euskaraz egiten: 3 puntu.

3) Lehenagotik ere aukera eskaini eta aurreko ere ikasleak lan-praktikak euskaraz egiten: 5 puntu.

j) Bikain ziurtagiria eskuratuta izatea: 5 (bost) puntu.

1) Aurreko deialdietan ziurtagiria eskuratu dutenak: 5 puntu.

2) Ziurtagiririk ez: 0 puntu.

5.– Beharrezkotzat jotzen denetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak pertsona edo entitate eskatzaileari behar beste informazio eta dokumentazio eskatu ahal izango dio, aurkeztutako jarduerak egoki den eran baloratzeko.

18. artikulua.– Diru-laguntzen mugak.

1.– Lehen euskara-planaren diseinuak jasotako balorazioaren arabera, honako diru-laguntzen mugak finkatu dira:

Puntuak	Diru-laguntzen mugak
40-60	5.000 euro
61-75	8.000 euro
76-100	10.000 euro

2.– 2013ko kudeaketa-planaren balioespenaren arabera, honako diru-laguntzen mugak finkatu dira:

Puntuak	Diru-laguntzen mugak
40-60	15.000 euro
61-70	20.000 euro
71-80	25.000 euro
81-100	35.000 euro

3.– Esleitu beharreko diru-laguntza ez da eskatutako diru-kopurua baino handiagoa izango. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak pertsona edo entitate eskatzailearen proposamena bertan behera utziko du 40 (berrogei) puntu baino gutxiago jasotzen dituzten jardueren kasuan, edota balorazio-batzordeak esleipen-proposamena prestatu ondoren, pertsona edo entitate jakin bati esleitu behar zaion diru-kopurua guztira bi mila (2.000) euro baino gutxiagokoa balitz.

4.– Edozein modutan ere, herri-aginteei orotara 17.2 artikuluan jasotzen den aurrekontu araztuaren gaineko % 60ko diru-laguntza esleituko dute, gehienez ere.

5.– Halaber, pertsona edo entitate bakoitzak gehienez 35.000 euro jasoko ditu deialdiaren kapi-tulu honetan zehazten diren modalitate bakarrera edo bietara aurkeztuta ere.

6.– Horretaz gain, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortzen duen Aginduak ezarritako eba-luazio-prozesua 2012an burutu eta horren ondorioz Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu duten pertsona edo entitate eskatzaileei diru-kopuru gehigarria emango zaie ziurtatutako mailaren arabera, baldin eta deialdi honetako baldintzak betetzen badituzte eta diru-laguntza eskuratzeko lortu beharreko gutxieneko puntuak lortzen badituzte:

Ziurtagiriaren maila	Diru-kopuru gehigarria
Oinarrizko maila	1.000 euro
Maila ertaina	3.000 euro
Goi-maila	5.000 euro

7.– Laguntza-deialdi honetan sarbiderik izan arren, kanpoan utziko dira Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2013an beste bideren batetik diruz lagundutako jarduerak.

8.– Laguntza-modalitate honetan aurrez ikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edo-zein erakunde publikok nahiz pribatuk helburu bertsurako eman ditzakeenekin, baldin eta agindu honetako mugak errespetatzen badira eta eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Laguntza-mugak gainditu edota gain-finantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren kopurua murriztu egingo da, diruz lagundutako jardueraren kostu osoari gehienez dagokion diru-laguntzara arte.

9.– Ondokoak dira kontuan hartuko diren gastuak eta mugak:

a) Lehen euskara-planaren diseinua.

b) Itzulpenetarako, gehienez ere, gastu osoaren % 50 hartuko da kontuan, betiere, 12.000 euroko gastua baino gehiago ez bada. Kontuan hartuko den tarifa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak gaztelaniatik euskarara itzultzeko testu errazetan edo estandarretan aplikatzen duena izango da, horri KPlagatik dagokion igoera aplikatuta: 0,0823 euro hitzeko.

c) Batzarretako aldi bereko itzulpen-zerbitzua. Gehienez ere 2.000 euro arteko gastua hartuko da kontuan.

d) Langile elebidunen lanari lotutako hizkuntza-trebakuntza orokorra, baldin eta HABEk diruz lagundu ez badu. Kalkuluak egiteko erabiliko den erreferentzia: 5,21 euro ikasle/orduko KPIa apli-katuta.

e) Langile elebidunen laneko berariazko ezagutza zabaltzeko edota sakontzeko prestakuntza-ikastaroa euskaraz.

f) Softwarea. Kontzeptu honetan, gehienez ere, 15.000 euroko gastua hartuko da kontuan. Terminologia zein hizkuntza egokitzen soilik denean, honi dagokion diru-zuzkidura itzulpenen atalean sartu beharko da, derrigorrean. Edozein eratarik, entitateek softwaregintzan egin dituzten lanen merkatuko kostu estimatua zein izan litekeen jakiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuorde-tzak era horretako lanetan eskarmentua duten aholkularitzekin jarduteko aukera izango du, baldin eta beharrezkotzat joko balu.

g) Berrikuntza eta euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 egitasmoak: aurkezten diren proiektuen artean, euskararen erabilera planari lotutakoak onartuko dira soilik. Proiektu berritzaile horiek, metodologikoak nahiz teknologikoak izan daitezke. Ez dira onartuko, hortaz, berritzaile izanik, euskararen erabilera sustatzearekin zerikusirik ez dutenak, ezta itzulpen soilak ere. Ondorioz, horiek eragindako gastuak ez dira aintzat hartuko.

h) Plangintzaren jarraipena, ebaluazioa, inplementazioa eta egokitzapena. Honetan hiru azpi-kontzeptu hauek hartuko dira aintzat:

1) Euskara Batzordearen jarduera aintzat hartuko da azpi-kontzeptu honetan; hots, euskara batzordekideen kopurua eta lan-bileren orduak.

2) Euskara-koordinatzailearen dedikazioa ere kontuan hartuko da; bere lan-jardunaren barruan zeregin horri eskainitako denbora (ehunekotan) eta horren kostua.

3) Pertsona edo entitate eskatzaileak kanpo aholkularitza-zerbitzua kontratatua baldin badu, planaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokien gastua ere aintzat hartuko da.

i) Bestelako gastuetarako, gehienez ere, gastu osoaren % 20 hartuko da kontuan, beti ere, 10.000 euroko gastua baino gehiago ez bada. Bestelako gastuetan ez dira honako kontzeptuak aintzat hartuko: ohiko euskalduntze- edo/eta alfabetatze-gastua ezta funtzionamendu-gastuak ere; motibazio-ekintzak jaso daitezke bertan.

19. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdiaren ebazpena eman aurretik, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egiaztatu egingo du eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituztela. Nolanahi ere, egiaztapenaren ondorioz ikusten bada eskatzaileraren batek zerga-betebeharren bat ez duela betetzen, eskaera egingo zaio egoera zuzentzeko eta horretarako 10 eguneko epea emango zaio. Hala egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari.

2.– Balorazio-batzordearen proposamena ikusita, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko ebazpena emango du. Ebazpen hori, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta sei hilabeteko epean interesdunei jakinaraziko die.

3.– Aurrekoari kalterik egin gabe, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da herriar orok jakin dezan.

4.– Sei hilabeteko epea amaitu eta interesdunak inolako jakinarazpenik jaso ez badu, eskabidea gaitzetsizat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

5.– Laguntza-eskatzailearen bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunean hasi eta hilabeteko epean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko aukera izango du.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren onarpena.

Diru-laguntza esleitu zaiola adieraziz bidalitako jakinarazpena jaso eta hamar (10) egun balioduneko epean diru-laguntzaren eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartutzat emango da.

21. artikulua.— Diru-laguntzaren ordainketa.

Esleitutako diru-laguntzen ordainketak bi zatitan egingo dira:

a) Lehenengo ordainketan diru-laguntza osoaren ehuneko hirurogeita bost (% 65) ordainduko da, diru-laguntza onartutzat ematen den egunean hasi eta bi (2) hilabeteko epean.

b) Bigarren ordainketan, hala badagokio, gainerako ehuneko hogeita hamabost (% 35) ordainduko da, diru-laguntza justifikatzeko agiri guztiak jaso eta ontzat eman ondoren, hilabeteko epean.

22. artikulua.— Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.— Diru-laguntzaren zenbatekoa edozein delarik ere, diru-laguntzaren onuradun orok diruz lagundutako egitasmoaren gauzatzea justifikatu behar du ezinbestean Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren aurrean.

2.— Diru-laguntza zuritzeko, gastuak, baita hauei dagozkien ordainketa-agiriak ere, 2013ko urtarrilaren 1a eta 2013ko abenduaren 31 bitartekoak izango dira.

3.— Diru-laguntzaren justifikazioa egiteko azken eguna 2014ko urtarrilaren 31 izango da.

4.— Zuritzeko erak:

4.1.— Justifikazioak, Herriarren Arretarako Bulegoetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lurralde unitateetan edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan aurreikusitako tokietakoren batean aurkeztu ahalko dira.

4.2.— Gainera, justifikazioak <http://www.euskadi.net/misgestiones> web gunean modu elektronikoan aurkez daitezke.

23. artikulua.— Diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.— Jasotako diru-laguntza zuritzeko, pertsona edo entitate onuradunak gastuen fakturak eta bestelako justifikazio-agiriak, betiere 2013ko datadunak, aurkeztuko ditu. Gastu horiek, Emandako diru-laguntza justifikatzeko inprimakian finkaturiko kontzeptu nagusien arabera sailkatuta, bat etorri beharko dute balantzean azaldutakoarekin. Edozein modutan ere, pertsona/entitate onuradunak gutxienez aurrekontu araztua justifikatzeko/estaltzeko beste justifikazio-agiri aurkeztuko ditu.

2.— Justifikazioa justifikazio-kontu erraztuaren arabera ere egin ahal izango da, eskabidea egi-terakoan Entitate eta proiektuaren inguruko beste datu batzuk izeneko formularioan aukera hori hautatuz gero. Justifikazio-kontu erraztuak, erantzukizunpeko adierazpenaren izaera izango duenak, honako hauek jaso beharko ditu (Justifikazio-kontu erraztua deituriko formularioa):

2.a.— Agindu honetako 13.3 eta 26. artikuluek ezarritako betebeharrak betetzeari buruzko aitorpena.

2.b.— Diruz lagundutako egitasmoari dagokion gastuen zerrenda sailkatua, Emandako diru-laguntza justifikatzeko inprimakian finkaturiko kontzeptu nagusien arabera sailkatuta.

3.— Aurrekoez gain, onuradun guztiek honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Diruz lagundutako jardueren behin betiko balantze ekonomikoa sinatua, 2013ko diru-sarrerak eta -irteerak Emandako diru-laguntza justifikatzeko inprimakiaren arabera zehaztuz eta erakunde publiko nahiz pribatuetatik jasotako beste diru-laguntzak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta

Kultura Sailak esleitutakoa ere adierazita. Pertsona edo entitate onuradunak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandakoaz gain beste diru-laguntzarik jaso ez badu, horren adierazpena egingo du Emandako diru-laguntza justifikatzeko inprimakian bertan.

b) Berrikuntza edota euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 proiekturik eginez gero, memoria-txostena aurkeztu beharko da (Berrikuntza edota web 2.0 proiektu(ar)en memoria-txostena ize-neko formularioa). Honako hauek bildu beharko ditu:

- Egingako jardueren azalpena.
- Erabilitako giza baliabideak, baliabide ekonomiko eta materialen deskribapena.
- Helburuen ebaluazioa.

4.– 2013ko kudeaketa-plana garatzeko diru-laguntza jaso duten pertsonak edo entitateek honako hauek erantsi behar dituzte:

a) Lanhitz deialdirako sortutako aplikazio informatikoaren ebaluazio-atala beteta.

b) Itzuli edo egokitutako testuen ale bana eta jatorrizkoen ale bana euskarri informatikoan eta horren zerrenda (Exceleko formularioa). Agiri-ereduak, glosategi eta terminologia-lanez gain, diruz lagundutako prestakuntza eta trebakuntza-material kurrikularra ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren esku jarri behar da euskarri informatikoan.

c) Pertsona edo entitate onuradunak euskaratutako edota euskaraz sortutako aplikazio informatikoa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak IKT inbentarioan (www.euskara.euskadi.net/ikt) jasoa izatea nahi badu, egitasmoko IKT-fitxa bat aurkeztu beharko du, euskaraz eta gaztelaniaz eta euskarri informatikoan.

d) Hizkuntza-trebakuntza orokorraren eta euskaraz egin diren laneko berariazko prestakuntza-ikastaroen zerrenda, iraupena eta bakoitzean parte hartutako ikasleen kopurua (Exceleko formularioa).

e) Hala dagokionean, Euskara-batzordearen bileren akten kopia aurkeztu behar da euskarri informatikoan (besteak beste, honako hauek zehaztuz: data, partaideak, iraupena, jorratutako gaiak).

f) «Bestelako gastuak» kontzeptupean burututako ekintzen zerrenda (Exceleko formularioa).

5.– Diru-laguntza jaso duten pertsonak edo entitateek % 100ean justifikatu behar dute 17.2 artikuluan jasotako aurrekontu araztua.

6.– Agindu honetako 18.6 artikuluan adierazi bezala, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria izateagatik diru-kopuru gehigarria jaso duten pertsonak edo entitateek ez dute gehigarri hori justifikatu beharrik.

7.– Justifikazio-kontu erraztuaren arabera egiten bada ere, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak berak egoki iritzitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horrela eginez gero, organo emaileak eskatu ahalko dio onuradunari bidaltzeko bai laginketan aukeratutako gastu-inbertsioen egiaztatgiriak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztatgiriak ere.

8.– Justifikazio garaian, anomalia edo irregulartasunen bat ikusiz gero, Agindu honetako 24. eta 25. artikuluetan finkatutakoari ekingo zaio zuzenean.

24. artikulua.— Ez-betetzeak.

1.— Betebeharrak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik zein zatika, agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea.

b) Honako Agindu honen 26. artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, kitapen-ebazpenak zehaztutako kopurua ez itzultzea horretarako emandako epean.

d) Beste xedapen batean, orokorrean, nahitaezkoztat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea.

2.— Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenean, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenean eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenean, adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

25. artikulua.— Ebazpenaren aldaketa eta kitapen-ebazpena.

1.— Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, diru laguntzaren helburua betetzat jotzen dela, diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak bidezko likidazio-ebazpena emango du, eta, ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa berregokitu egingo da.

2.— Honako Agindu honen pentzutan emandako diru-laguntzaren onuradunak eman eta eskuraturako zenbatekoa eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli beharko ditu, honako kasu hauetakoren bat emanez gero: diru-laguntza horretarako eskatu eta eman zeneko zertarakoetarako ez erabiltzea, diru-laguntzaren jatorri izan zen ekintzarako ez erabiltzea, horietarako eskatu zeneko helburu jakinetan erabili dela ez justifikatzea edo, oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan (1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak onartua) edo honako Agindu honetan ezartzen diren eginbeharrak ez betetzea. Aurreko hori 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituenak esandakoaren arabera egingo da.

26. artikulua.— Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean finkaturiko betebeharrez gain, honako betebeharrak ere izango dituzte:

a) Diru-laguntza eskabide orrian zehaztutako helburu zehatzerako erabili beharko dute.

b) Eskabide-orrian aurreikusitako egitasmoa bere osotasunean gauzatu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatutako informazio guztia eman beharko dute.

d) Hizkuntzaren kalitatea bermatzea guztiz garrantzizkotzat jotzen denez gero, Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioak aintzakotzat hartu eta beteko dituzte. Hori betetzeko eta euskaren zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko, hizkuntza-ezagutza ziurtatuta duen pertsona bat izendatuko dute.

e) Indarrean dauden lege eskakizunak bete beharko dituzte jabego intelektualari, egite-eskubideei, lege-gordailuari, banaketari eta abarri dagokienez.

f) Laguntza-gai diren egitasmoek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatu beharko dituzte. Ondorioz, egitasmo horiek ezin izango dute herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementurik jaso, ezta beren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementurik ere.

g) Adierazpen- eta informazio-askatasunari begirunea erakustea. Horretarako, nork bere deontologiako arauak beteko ditu eta, aldi berean, politika-aniztasuna eta politika-, gizarte-, eta kultura-taldeei zor zaien aukera-berdintasuna bermatuko duen informazio egiazkoa eta objektiboa sustatuko du.

h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

i) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako babesaren berri adieraztea, betiere 13.3 artikuluan esandakoaren arabera.

27. artikulua.– Planaren jarraipena.

Planaren jarraipena egiteko jarraipen-batzordea osatu ahal izango da. Batzorde hau diru-laguntza jasotzen duen entitatearen Zuzendaritzako ordezkarien eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren artean osatuko da. Jarraipen-batzorderako bilera-deia egitea Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari dagokio. Aldez aurretik diru-laguntza jasotako entitatearen Zuzendaritzak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari jarraipen-txostena aurkeztuko dio aipatu bileran horren balorazioa egin ahal izateko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Deialdi honetako 2. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri eman beharko da Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

Bigarrena.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako kanpo-ebaluzioak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo

kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonak eta entitateak deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonak eta entitateek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.— Honako Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzen eraginkortasuna Europako Batzordeak baimendua izan edo baimendutzat ematearen menpe dago.

Hirugarrena.— Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-auririk sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat.

Laugarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamuneari izango du eragina agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 2a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.